



Eredua

# Bitamina

*Aberastu bere heziketa!*

Familia agurgarria:

Hezkuntza eredia eta ikastetxea aukeratzea zuen seme-alaben heziketan lehen urratsa ematea da: euren etorkizuna eraikitzen hastea.

Hainbat ikerketa egin dira eta bat datoz guztiak: hezkuntza elebidunean aritu diren ikasleek, adibidez, selektibitatea bezalako proba batean, heziketa elebarkarreko ikasleek baino emaitza hobeak lortzen dituzte.

Hezkuntza eleanitzak, haurren eskola errendimendua indartu, aberastu eta hobetu egiten du.

Euskarazko ereduak eleanitzasuna bermatzen dute eta horri esker, zuen semeak edo alabak hemengo bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz zein gaztela-

niaz, ederki hitz egiteko aukera izango du. Gainera, hirugarren edo laugarren hizkuntza errazago ikasteko bidea irekiko dio eta, bide batez, etorkizunera begirako aukera gehiago izango ditu.

Aurrematrikulazio epea otsailean hasiko da eta matrikula zuek aukeratutako ikastetxean egin beharko duzue. Zalantzarik badaukazue, jo lasai Udalaren Euskara Zerbitzura; han informazio gehiago eskuratu ahal izango duzue aurrematrikulazioa nola egin behar duzuen jakiteko.

Gutunarekin batera, neurgailua erantsi dizuegu opari, D bitaminaren indarrak zuen semea edo alaba egunetik egunera nola hazten den ikus dezazuen.

**Euskara: zure txikiarentzako D bitamina!**

  
Ana de Castro Rubalkaba  
Euskara Zinegotzia



Aurrematrikulazioa  
2010-2011 ikasturtea



Informazio gehiago:

**Bilboko Udala**  
Euskara Zerbitzua  
Erkoreka plaza, 1  
48007 Bilbo



**Ikasi**

**Partekatu**

**Hazi**

**Ezagutu**

